







## ERAKETA BITXIAK / FORMACIONES CURIOSAS

**Itxura bereziko harri hauek aurkitzeko Labirintotik "galtzera" animatzen zaituztegu.**

Os animamos a "perderos" por El Laberinto para encontrar formas curiosas como éstas.








### FITXA TEKNIKOA / FICHA TÉCNICA

**Luzera** / Longitud: 2 km
**Desnibela** / Desnivel: 32 m
**Zailtasuna** / Dificultad: baxua / baja
**Iraupena** / Duración: 35 minutu
(**Gelditu barik** / Sin paradas)

### INFORMAZIO GEHIAGORAKO BISITA EZAZU / PARA MÁS INFORMACIÓN VISITA

ekoetxea Meatzaldea-Peñas Negras

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Tfno: 94 633 80 97



UN PASEO POR LOS ALREDEDORES DE

# PEÑAS NEGRAS

## INGURUETATIK IBILBIDEA

Ortuella Udala

ekoetxea Meatzaldea-Peñas Negras

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



**Ekoetxea Meatzaldea-Peñas Negras Eusko Jaurlaritzak kudeatutako ingurumenari buruzko heziketa, informazio eta naturaren aldeko sentsibilizazioa sortzeko ekipamendua da. Kokapena aparta da gizakiak egindako lanaren ondorioz paisaian gertatutako aldaketak ulertzeko.**

**Ekipamendua bi haranen artean dago eta bertatik, hego-ekialderantz, area naturalagoa ikus daiteke (Loiolako Harana) eta, ipar-mendebalderantz, ibar irekiagoa eta gizatiartuagoa (Muskizko Harana).**

**Ibilbidean zehar, gainera, beste hainbat leku ere ikusiko ditugu: Bilboko Itsasadarraren bokalea, meatze auzoak, aire zabaleko meategi zaharrak, etab. Hori guztia ez ezik, "Labirinto" izenez ezagutzen den tokian ere sartuko gara. Leku hori modelaketa karstikoaren adibide interesgarria da.**

Ekoetxea Meatzaldea-Peñas Negras es un equipamiento de educación, información y sensibilización ambiental dependiente del Gobierno Vasco. Se encuentra ubicado en un lugar privilegiado para poder comprender la transformación que ha experimentado el paisaje como consecuencia de la acción humana.

A caballo entre dos valles, nos permite contemplar, hacia el sureste, un área más natural (valle de Loiola) y, hacia el noroeste, un valle mucho más abierto y humanizado (valle de Muskiz).

A lo largo de este paseo podremos ver, además, la desembocadura de la Ría de Bilbao, barrios mineros, antiguas minas a cielo abierto, etc. Por último, hay que destacar que este paseo nos permitirá adentrarnos en el paraje conocido como "El Laberinto", un interesante ejemplo de modelado kárstico.



## 1 EKOETXEA MEATZALDEA-PEÑAS NEGRAS

**Ibilbide polit eta erraz honen abiapuntua. Oso egokia familiarekin egiteko.**

Punto de partida de este bonito y cómodo itinerario. Ideal para hacer en familia.



## 3 MEAZULOA / GALERÍA

**Meatze ustiapenik nagusiena zeru irekian izan arren, leku batzuetan meazuloetara sarrerak ikusi ahal dira.**

A pesar de que la mayor actividad minera se llevó a cabo a cielo abierto, es posible ver entradas a galerías.



## 4 PLANO INKLINATUAREN AZTARNA
## RESTO DE PLANO INCLINADO

**"Luchana Mining" plano inklinatuaren hasieraren zati bat. Enpresa honen trena, Errekatxo zeharkatu ondoren, Bilboko Itsasadarrera heltzen zen Lutxanan (Barakaldo).**

Parte de la cabecera del plano inclinado de la "Luchana Mining", cuyo tren, tras pasar por El Regato, llegaba a la Ría en la zona de Lutxana (Barakaldo).



## 2 IKUSPEGIA: LOIOLAKO HARANA
## PANORÁMICA: VALLE DE LOIOLA

**Ibilbidearen hasiera Peñas Negras (Ortuella) eta Errekatxo (Barakaldo) lotzen dituen haranetik doa. Inguru honetan meatze iraganeko hainbat aztarna: meazuloak, plano inklinatuak, meategiak, mineralak, etab. eta interes naturaleko elementu ezberdinak: ibaiertzeko basoa, errekak, anfibioak, etab. ikus daitezke.**

La primera parte del recorrido transcurre por este valle que une Peñas Negras (Ortuella) con El Regato (Barakaldo). En este paraje se pueden ver numerosos vestigios del pasado minero: galerías, planos inclinados, minas, minerales, etc. además de elementos de interés natural: vegetación de ribera, arroyos, anfibios, etc.



## 5 PICKWICK MEATEGIA / MINA PICKWICK

**Lurrazaleko antzinako meatze ustiapena burdin oxidoaren gorri bereizgarriarekin.**

Antigua explotación minera a cielo abierto con el característico rojo del óxido de hierro.



## 6 ITURRIA / FUENTE

**Batzuetan, kareharrian zehar iragazten den ura kanpora ateratzen da iturriak sortuz.**

En ocasiones, el agua que se filtra a través de la roca caliza sale al exterior dando lugar a manantiales.



## 8 LAPIAZ

**Paisaia karstikoaren goiko aldean euri urak eragindako modelaketa berezi hau agertzen da.**

En la zona superior del paisaje kárstico se puede observar un llamativo modelado, originado por el agua de lluvia.



## 7 IKUSPEGIA: LA ARBOLEDA
## PANORÁMICA: LA ARBOLEDA

**Talaia honetatik La Arboleda inguruko ikuspegi ikusgarria begiztatu daiteke.**

Desde esta atalaya se puede contemplar una bonita vista panorámica de la zona de La Arboleda.



## 9 KORRIDOREAK / PASILLOS

**Peñas Negras-eko Labirintoak burdin mea erauzketaren ondorioz sortutako korridoreei bere izena zor die. Leku ezberdinetan leherketen eta laztabinen markak ikusteko aukera dago.**

El Laberinto de Peñas Negras debe su nombre a los pasillos resultantes de la extracción de mineral de hierro. En distintos puntos es posible observar marcas de voladuras y de barrenos.



## 10 IKUSPEGIA: MUSKIZKO HARANA
## PANORÁMICA: VALLE DE MUSKIZ

**Peñas Negras-etik Muskiz udalerriko bista zoragarria ikusi ahal izango dugu. Hemen Kantauri itsasoa, La Arena hondartza eta Petronor dira protagonistak.**

Desde Peñas Negras podremos contemplar una espectacular vista del municipio de Muskiz, donde los protagonistas son el mar Cantábrico, la playa de La Arena y Petronor.